a.2.– Utilización del euskera en la ejecución del programa o actividad (véase el anexo II) (Argumentar).

a.3.– Universo de beneficiarios/as del programa o actividad (argumentar).

a.4.– Programaren edo jardueraren lurralde-eragina (arrazoitu).

b) Programaren edo jardueraren exekuzio-egutegia, posible bada, kronograma baten bitartez adierazita.

c) Programaren edo jardueraren aurrekontu zehatza eta xehatua, eskaera egin duen entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetua.

c.1.– Entitate eskatzailea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpena egitera behartuta badago, aipatu zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da inolaz ere gastu diruz lagungarritzat hartu. Hori horrela, entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoaren zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, non adieraziko baitu berak ordezkatzen duen entitatea BEZ zergaren aitorpena behartuta dagoenentz eta, ondorioz, aurkeztutako gastu-aurrekontuak BEZ zergari dagokion zenbateko ez-kengarria barne hartzen duela edo, aldiz, zenbateko kengarria kanpoan uzten duela.

c.2.– Aurrekontuak orekatua beharko du izan, hots, gastuak berdin diru-sarrerak, eta diru-sarreren atalean honako datu hauek zehaztu beharko dira:

c.2.1.– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila kanpoan utzita, xede berberaz diru-laguntza(k) eskatu zai(zki)en edo, hala badagokio, eskatu asmo zai(zki)en nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuen zerrenda zehatza.

c.2.2.– Aurreko paragrafoan aipaturiko herri administrazioei edo entitateei eskatutako diru-kopurua edo, besterik ezean, kasuan kasu jasotzea espero dena.

c.2.3.– Diru-laguntza guztien egoera (eskatzekoa, ebazpenaren zain, esleituta, ea.).

c.2.4.– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

c.3.– Eskabidea aurkezten den egunerako beste diru-laguntzarik eskatu ez bada edo hura aurkeztu ondoren beste diru-laguntzarik eskatzeko asmorik ez badago, hori horrela dela zinpeko aitorpen bidez adierazi beharko da. Aitorpena eskaera egiten duen entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetu beharko du.

d) Aurkeztutako programa edo jarduera hobeto baloratu ahal izateko, eskaera egiten duen entitateak egokitzat jotzen duen nahi beste dokumentazio osagarri ere erantsi dezake.

Dena dela, aurkeztutako programa edo jarduera(k) hobeto baloratze aldera, Zerbitzu Zuzendaritzak edo Balorazio batzordeak informazio eta dokumentazio gehiago eskatu ahal izango diete entitate eskatzaileei.

4.– Ordainketa egiteko dokumentazioa:

a) Banku-helbideratzea Espainian duten entitate eskatzaileak badira:

a.4.– Repercusión territorial del programa o actividad (argumentar).

b) Calendario de ejecución del programa o actividad, a ser posible mediante un cronograma.

c) Presupuesto desglosado y detallado del programa o actividad, debiéndose firmar por la persona física que ostente la representación legal de la entidad solicitante.

c.1.– No se podrá incluir como gasto subvencionable el importe del IVA deducible cuando la entidad solicitante esté obligada a realizar declaración del mencionado impuesto. En este sentido, deberá aportarse declaración jurada suscrita por la persona que ostenta la representación legal de la entidad solicitante, manifestando en la misma que la entidad a la que representa no está/está obligada a realizar la declaración del IVA y que, consecuentemente, el presupuesto de gasto presentado incluye/excluye el importe no deducible/deducible correspondiente al mencionado impuesto.

c.2.– Habrá de ser equilibrado, es decir, gastos igual a ingresos, debiéndose precisar en el apartado de ingresos:

c.2.1.– Relación exhaustiva de las administraciones o entidades, ya sean públicas o privadas, nacionales o internacionales, diferentes al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a las que se han solicitado subvenciones –o, en su caso, se tenga previsto solicitar– para el mismo objeto.

c.2.2.– El importe solicitado a las mencionadas administraciones o entidades o, en su defecto, el importe que en cada caso se prevea percibir.

c.2.3.– El estado de las solicitudes (a solicitar, pendiente de resolución, concedida, …).

c.2.4.– El importe solicitado al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

c.3.– En el supuesto de no haberse solicitado ninguna otra subvención a la fecha de presentación de la solicitud o no tener previsto solicitar ayuda alguna con posterioridad a la misma, habrá de presentarse declaración jurada acreditativa de tal extremo suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad solicitante.

d) Voluntariamente podrá adjuntarse cualquier otra documentación que la entidad solicitante entienda que sea pertinente para la mejor valoración del programa o actividad presentado/a.

En todo caso, la Dirección de Servicios y/o la Comisión de Valoración podrá(n) requerir a las entidades solicitantes cuanta información y documentación complementaria estime(n) necesaria en orden a la valoración del programa o actividad presentado/a.

4.– Documentación para el libramiento de pagos:

a) Supuesto de entidades solicitantes con domiciliación bancaria en el estado español:

a.1.– Banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-entitateak) emandako edo ziurtatutako dokumentua-edo, zeinek, gutxienez, honako datuak jasoko baititu:

a.1.1.– Banku-erakundearen izena.

a.1.2.– Banku-erakundearen helbidea.

a.1.3.– Kontuaren zenbakia (20 digitu).

a.1.4.– Kontuaren titularra.

Aipaturiko dokumentua-edo segituan aipatzen den interneteko helbidean aurkitu daitekeen «Datuen Alta/Doakion Interesatua» inprimakiaz (egoki beteta eta bertan eskatzen den dokumentazioaz lagunduta) ordezkatu daiteke (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/adjuntos/tercero_2.pdf).

b) Banku-helbideratzea atzerrian duten entitate eskatzaileak badira:

b.1.– Banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-entitateak) emandako edo ziurtatutako dokumentua-edo, zeinek, gutxienez, honako datuak jasoko baititu:

b.1.1.– Banku-erakundearen izena.

b.1.2.– Banku-erakundearen helbidea.

b.1.3.– IBAN (International Bank Account Number/Bankuko Kontuaren Nazioarteko Zenbakia).

b.1.4.– BIC (Bank Identifier Code/Bankuaren Identifikazio Kodea).

b.1.5.– Kontuaren titularra.

Aipaturiko dokumentua-edo segituan aipatzen den interneteko helbidean aurkitu daitekeen «Datuen Alta/Doakion Interesatua» inprimakiaz (egoki beteta eta bertan eskatzen den dokumentazioaz lagunduta) ordezkatu daiteke (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/adjuntos/tercero_2_internacional.pdf).

12. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan akatsak zuzentzea.

1.– Kasuan kasuko eskabidea aztertuta, horrek akatsen bat duela edo osatugabea dela Zerbitzu Zuzendaritza ohartuz gero, zuzendaritzak berak eskabidea egin duen entitate interesdunari eskatuko dio, idatziz, akatsa zuzen dezala edota falta den dokumentazioa bidal dezala eta horretarako hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpen-idazkia jasotzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita.Horretaz gain, eskaera egin duen entitate interesdunari igortzen zaion jakinarazpen-idazkian honako hau ere adieraziko zaio: eskatutako oro horretarako dagoen epean aurkeztu ezik, azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legearen 42. eta 71. artikuluetan ezarritakoaren arabera dagokion ebazpena emanda, eskabidearen tramitazioan atzera egin duela ulertuko dela.

a.1.– Documento o similar expedido y/o certificado por la correspondiente entidad bancaria (banco o entidad de ahorro) en el que, mínimamente, figuren los siguientes datos:

a.1.1.– Denominación de la entidad bancaria.

a.1.2.– Dirección de la entidad bancaria.

a.1.3.– Número de cuenta (20 dígitos).

a.1.4.– Titular de la cuenta.

El mencionado documento puede ser sustituido por el anexo «Alta de terceros» que figura en la dirección http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html debidamente cumplimentado y aportando la documentación requerida en el mismo.

b) Supuesto de entidades solicitantes con domiciliación bancaria en el extranjero:

b.1.– Documento o similar expedido y/o certificado por la correspondiente entidad bancaria (banco o entidad de ahorro) en el que, mínimamente, figuren los siguientes datos:

b.1.1.– Denominación de la entidad bancaria.

b.1.2.– Dirección de la entidad bancaria.

b.1.3.– IBAN (International Bank Account Number / Número Internacional de la Cuenta Bancaria).

b.1.4.– BIC (Bank Identifier Code / Código de identificación del Banco).

b.1.5.– Titular de la cuenta.

El mencionado documento puede ser sustituido por el anexo «Alta de terceros internacional» que figura en la dirección http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizaciones/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html, debidamente cumplimentado y aportando la documentación requerida en el mismo.

Artículo 12.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

1.– Si la Dirección de Servicios advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto u omisión, requerirá por escrito a la entidad para que en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución emitida al efecto, de conformidad a los artículos 42 y 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC).

2.– Atzera egin izanaren berariazko ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaio entitate interesdunari, aurreko puntuan adierazitako epea bukatzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita.

13. artikulua.– Balorazio batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio batzorde bat osatuko da jarraian azaltzen de moduan:

a) Batzordeburua: Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria.

b) Batzordekideak:

b.1) Kultura Sustatzeko zuzendaria edo, bestela, berak izendatutako zuzendaritza bereko teknikari bat.

b.2) Kultura Ondarearen zuzendaria edo, bestela, berak izendatutako zuzendaritza bereko teknikari bat.

b.3) Euskara Sustatzeko zuzendaria edo, bestela, berak izendatutako zuzendaritza bereko teknikari bat.

b.4) Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzaren eskumen-eremu ezberdinetako bi teknikari, sailburuordeak izendatutakoak.

c) Idazkaria: Zerbitzu zuzendariak izendatutako zuzendaritza bereko teknikari bat. Teknikari honek ez du izango botoa emateko eskubiderik; bai, ordea, iritzia ematekoa.

2.– Lehenengo bilera egin aurretik, batzordea osatzen duten kideen izendapena jendaurrean jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu riko Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez. Hartara, entitate interesdun orok azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legearen 29. artikuluan jasotako eskubideak erabili ahalko ditu.

3.– Balorazio batzordeak, beharrezko iritziz gero, aholkularitza eskatu ahal izango du sailaren barruan edo kanpoan.

4.– Eskabideak aurkezteko epea amaituta, batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Kultura sailburuari hiru hilabeteko epean.

Proposamen horrek honako aspektu hauek zehaztuko ditu:

a) Entitate onuradunen zerrenda, diru-laguntza jaso dezaketen programak edo jarduerak eta kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa.

b) Diru-laguntzarik jasoko ez duten entitateen zerrenda, bazter utzi daitezkeen programak edo jarduerak eta hori horrela izateko kasuan kasuko arrazoia.

14. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Ebazpen-proposamena egiteko, Balorazio batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

2.– La resolución expresa de desistimiento se notificará en el plazo máximo de un mes contado a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de 10 días mencionado en el punto anterior.

Artículo 13.– Comisión de Valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: el Director de Servicios del Departamento de Cultura.

b) Vocales:

b.1.– El Director de Promoción de la Cultura, o, en su defecto, un/una técnico/a de la misma dirección designado/a por aquél.

b.2.– La Directora de Patrimonio Cultural, o, en su defecto, un/una técnico/a de la misma dirección designado/a por aquélla.

b.3.– El Director de Promoción del Euskera, o, en su defecto, un/una técnico/a de la misma dirección designado/a por aquélla.

b.4.– Dos técnicos/as responsables de diferentes áreas competenciales de la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes designados/as por el Viceconsejero.

c) Secretario/a: dicha función será encomendada a un/una técnico/a de la Dirección de Servicios del Departamento, designado por la Directora de la misma, y actuará con voz pero sin voto.

2.– A fin de que cualquier entidad interesada pueda ejercer las facultades reconocidas en el artículo 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC), mediante Resolución del Director de Servicios que se insertará en el Boletín Oficial del País Vasco se hará pública la composición efectiva de esta Comisión con carácter previo a su primera reunión.

3.– Cuando la Comisión de Valoración lo estime pertinente, ésta podrá solicitar asesoramiento tanto intra como extradepartamental.

4.– La Comisión elevará la oportuna Propuesta de Resolución a la Consejera de Cultura en el plazo máximo de tres meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La propuesta determinará:

a) La relación de entidades beneficiarias, los programas o actividades objeto de subvención y la cuantía a otorgar a cada uno de ellos.

b) La relación de entidades no beneficiarias, los programas o actividades cuyas solicitudes de subvención han sido denegadas y el motivo de denegación en cada caso.

Artículo 14.– Criterios de valoración.

Al objeto de elaborar la Propuesta de Resolución, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta los siguientes criterios:

1.– Programak edo jarduerak kulturaren ikuspegitik izan dezakeen interes-maila (% 50).

2.– Euskararen erabilera programaren edo jardueraren garapenean (% 15). (ikus II. eranskina).

3.– Programaren edo jardueraren autofinantziazioa (% 15). Bere maila neurtzeko, nazio mailako zein nazioarteko beste administrazio publikoen diru-sarrerak izan ezik (Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua barne), gainerako diru-sarrera mota guztiak hartuko dira kontuan [(autofinantziazioa – 30) x 15/70].

4.– Programaren edo jardueraren balizko onuradun-unibertsoa (% 10).

5.– Programaren edo jardueraren lurralde-eragina (% 10).

15. artikulua.– Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa.

Agindu honen babesean eman daitekeen kasuan kasuko diru-laguntza ezingo da programa edo jarduera horretarako aurkeztutako aurrekontu osoaren % 70 baino handiagoa izan, ez eta 60.000,00 eurotik gorakoa ere.

16. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna eta horiek berriz aztertzea.

1.– Agindu honek araututako diru-laguntzak eta, xede berberaz, nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioek edo entitate publiko zein pribatuek esleitu ditzaketenak bateragarriak izango dira, azkeneko horiek, bakarka hartuta zein batera metatuta, ezingo direlarik, inolaz ere, entitate onuradunak burututako programaren edo jardueraren kostua baino handiagoa izan ez eta eskabidearekin batera aurreikusitako gastu-aurrekontua baino handiagoa ere.

2.– Diru-laguntzak esleitzeko kontuan izandako edozein baldintza aldatzeak, eta, edozein kasutan, diruz lagundutako programaren edo jardueraren kostua gainditzen duten nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuen diru-laguntzak metaketa bidez eskuratzeak esleipen-erabakia aldatzea ekarriko du eta baita, hala badagokio, entitate onuradunak jasotako zenbatekoa itzuli behar izatea ere.

17. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio batzordeak egindako proposamenaren argitan, Kultura sailburuak dagokion ebazpena emango du. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaitzen du eta interesdunek, horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango diote ebazpena eman duen organoari hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpen-idazkia jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari bi hilabeteko epean, jakinarazpen-idazkia jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

1.– Interés del programa o actividad desde el punto de vista cultural (50%).

2.– Utilización del euskera en las diferentes fases de ejecución del programa o actividad (15%) (véase el anexo II).

3.– Autofinanciación del programa o actividad (15%). Para su cálculo, quedarán excluidos del total de los ingresos tanto aquéllos procedentes de las administraciones públicas, nacionales o internacionales, como el importe solicitado al Departamento de Cultura [(autofinanciación – 30) x 15/70].

4.– Universo beneficiario del programa o actividad (10%) (argumentar).

5.– Repercusión territorial del programa o actividad (10%) (argumentar).

Artículo 15.– Cuantía máxima de las subvenciones.

El importe de cada una de las subvenciones que se concedan al amparo de la presente Orden no superará el 70% del presupuesto presentado para la realización del programa o actividad correspondiente y en ningún caso podrá ser superior a 60.000,00 euros.

Artículo 16.– Compatibilidad y revisión de subvenciones.

1.– Las subvenciones reguladas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras procedentes de otras Administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, nacionales o internacionales, no pudiendo, en ningún caso, ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia, superen el coste del programa o actividad proyectado o desarrollado por la entidad solicitante.

2.– Toda alteración en las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de estas subvenciones y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones de otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales que superen el coste de la actividad subvencionada, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión, debiendo la entidad beneficiaria proceder al reintegro de las cantidades percibidas, en su caso.

Artículo 17.– Resolución.

1.– La Consejera de Cultura, a la vista de la propuesta formulada por la Comisión de Valoración, dictará la correspondiente resolución. Esta resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra ella, potestativamente, podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

2.– Prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, honako agindu honek eragina izango duen egunean bertan zenbatzen hasita. Epea igarota eta entitate interesdunek ebazpenaren jakinarazpen-idazkirik jaso ez badute, eskabidea(k) ezetsi d(ir)ela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legearen 44. artikuluan aurreikusi bezala, nahiz eta horrek ez salbuetsi lege horrek Administrazioari ebazpen adierazia emateko ezartzen dion betekizuna.

3.– Ebazpena entitate interesdun orori jakinarazteaz gain, entitate onuradunak, diru-laguntza jaso duten programak edo jarduerak eta kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa jasotzen dituen Zerbitzu zuzendariaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko dira, jendeak horren berri izan dezan.

18. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honen bitartez araututako diru-laguntzen entitate onuradunek honako hauek bete behar dituzte:

1.– Esleitutako diru-laguntza onartzea. Hartara, entitate onuradunak laguntza onartzen duela adierazteko hamabost egun baliodunеko epea izango du, jakinarazpen-idazkia jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe horretan adierazpenik egin ezean, laguntza onartzen duela ulertuko da, horrek dakartzan eskubide eta betebehar guztiekin.

2.– Diru-laguntza esleitzea oinarri den programa edo jarduera burutzea, diru-laguntza jasotako programak edo jarduerak aurreikusitako exekuzio- eta justifikazio-epeak hala nola programetatik edo jardueretatik eratortzen diren xehetasunak betez.

3.– Emandako diru-laguntza programaren edo jardueraren exekuzioak sortarazitako gastuei aurre egiteko erabiltzea, diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan ezarritakoaren arabera.

4.– Egiaztatze-jarduerei men egitea eta, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

5.– Diruz lagundutako jardueraren/jardueren hasierako programa aldarazi dezakeen/ditzakeen edozein intzidentziaren edo gertakariren berri Zerbitzu Zuzendaritzari eman beharko dio entitate onuradunak eta baita, jakinarazitako aldaketa gauzatu baino lehenago, Kultura sailburuaren baimena jaso ere. Edonola ere, aldaketak ezingo du eraginik izan jarduketaren izaeran, hots, diruz lagundutako programaren zein jardueraren objektuan edo xedean.

6.– Xede berberaz nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioetatik edo entitate publiko zein pri-

2.– El plazo máximo para la notificación de la resolución del procedimiento será de seis meses, a contar desde el día en el que la presente Orden surta efectos. Transcurrido el plazo máximo sin que se haya notificado la resolución, las entidades interesadas podrán considerar desestimada(s) su(s) solicitud(es) a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC), sin perjuicio de la obligación que dicha ley impone a la Administración de resolver expresamente.

3.– La resolución se notificará a todas las entidades interesadas y, así mismo, mediante Resolución del Director de Servicios, se publicarán, a efectos de general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco las entidades beneficiarias, los programas o actividades subvencionados así como el importe de las subvenciones concedidas a los mismos.

Artículo 18.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

1.– Aceptar la(s) subvención(es) concedida(s). A tal efecto se les otorgará un plazo de quince días hábiles a partir del día siguiente al de la notificación para que declaren su aceptación. Caso de que transcurrido el plazo señalado no efectúen declaración al respecto se entenderá(n) aceptada(s) asumiendo los derechos y obligaciones derivados de la(s) misma(s).

2.– Realizar el programa o actividad que fundamenta la concesión de la subvención, cumpliendo los plazos de ejecución y justificación previstos y cuantos otros extremos se deriven de la realización de dichas programas o actividades.

3.– Destinar la subvención otorgada a sufragar los gastos derivados de la realización del programa o actividad, conforme al presupuesto presentado para el reconocimiento de la subvención.

4.– Someterse a las actuaciones de comprobación y facilitar al Departamento de Cultura, a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

5.– Comunicar a la Dirección de Servicios toda incidencia que suponga modificación del programa inicial de la actividad o actividades subvencionada(s), modificación que deberá ser autorizada, con carácter previo a su realización, por la Consejera de Cultura. La modificación no podrá en ningún caso afectar a la naturaleza de la actuación (objeto y/o finalidad para la que se concedió la ayuda).

6.– Comunicar a la Dirección de Servicios la obtención de otras subvenciones o ayudas para la misma fi-

batuetatik jasotako diru-laguntzen edo laguntzen berri ematea Zerbitzu Zuzendaritzari.

7.– Diruz lagundutako programa edo jarduera promozionatzeko egindako testu, dokumentu eta antzeko elementuetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dela adierazten duen aipamena egitea. Aipamen hori euskaraz egin beharko da edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

Diruz lagundutako programak edo jarduerak bestelako finantziazio-iturriak izanik eta, aldi berean, entitate onuradunak hori horrela dela publizitatu beharra izanez gero, Kultura Sailak esleitutako diru-laguntzari entitate onuradunak eskainitako zabalkunde-bideek eta garrantziak bestelako finantziazio-iturrienekiko antzekoak izan beharko dute.

8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzio-aldian hizkera ez-sexista erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera ez-estereotipatua egitea.

9.– Ordenamendu juridikoak eta, bereziki, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak ezartzen duen beste edozein.

19. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Agindu honetan oinarrituz esleitutako diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

1.– Lehenengo zatiaren ordainketa, diru-laguntza osoaren ehuneko hirurogeita hamabosta (% 75), diru-laguntza onartzen den egunetik zenbatzen hasi eta handik hilabeteko epean.

2.– Bigarrenarena, baldin eta hala badagokio, diru-laguntza osoaren ehuneko hogeita hamabosta (% 25), diru-laguntza behin zurituta, baldin eta justifikazioa zuzena, nahikoa eta egokia bada.

a) Kasuan kasuko hirugarren interesdunari egin beharreko ordainketa(k) gauzatu d(ir)ela egiaztatzen du(t) en dokumentu bat edo gehiago izan ezik, diruz lagundutako programaren edo jardueraren/jardueren objektua(k) edo xede(a)k zuzen, nahiko eta egoki betea(k) izanik, esleitutako diru-laguntzaren bigarren zatiaren odainketa tramitatu ahal izango da, zeinaren gerorako justifikazioa edo zuriketa 23.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztearen menpe gelditzen baita.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazio-epea.

Esleitutako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko bi hilabeteko epea egongo da, diruz lagundutako programa edo jarduera bukatzen den egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, 2010eko otsailaren 26a baino lehen zuritu beharko da.

nalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales.

7.– Incorporar en los elementos de promoción y textos o documentos que se elaboren con ocasión del programa o actividad subvencionado la mención al patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Dicha mención al patrocinio deberá figurar en euskera o, en su defecto, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuando el programa o actividad subvencionado disfrutara de otras fuentes de financiación y la entidad beneficiaria viniera obligada a dar publicidad de esta circunstancia, los medios de difusión de la subvención concedida por el Departamento de Cultura así como su relevancia deberán ser análogos a los empleados respecto a las otras fuentes de financiación.

8.– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las entidades beneficiarias adquieren el compromiso de no utilizar lenguaje sexista en el desarrollo y ejecución de las actividades subvencionadas y, así mismo, garantizarán que no haya usos estereotipados en relación a los roles de mujeres y hombres.

9.– Cualquier otra legalmente establecida por el ordenamiento jurídico y, en particular, por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Artículo 19.– Pago de la subvención.

Las subvenciones concedidas con cargo a la presente Orden se abonarán en dos pagos, de acuerdo al siguiente procedimiento:

1.– Un primer pago por un setenta y cinco por ciento del total, en el plazo de un mes contado a partir de la fecha de aceptación de la subvención.

2.– Un segundo pago por la cantidad restante, si así correspondiera, tras la justificación de la subvención, siempre y cuando ésta sea correcta, adecuada y suficiente.

a) Excepcionalmente podrá realizarse el segundo pago condicionado a la justificación a través de la presentación de la documentación a la que se alude en el artículo 23.2, siempre y cuando, a excepción de uno o más documentos acreditativos del libramiento del pago a favor del tercero interesado en cada caso, la finalidad del programa o actividad subvencionado haya sido justificada de manera correcta, adecuada y suficiente.

Artículo 20.– Plazo de justificación de la subvención.

El plazo para la presentación de la documentación acreditativa de la justificación de la subvención otorgada será de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del programa o actividad subvencionado y, en todo caso, no posterior al 26 de febrero de 2010.

21. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

Justifikazioak, III. eranskineko ereduari jarraituta eta dokumentazio osagarriarekin batera, Zerbitzu zuzendariari zuzenduta aurkeztu behar dira. Aurkezteko tokiak honakoak dira: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritza (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Bizkaiko Lurralde Zerbitzua (Gran Vía 85, Bilbao) edo Gipuzkoako Lurralde Zerbitzua (Andia kalea 13, Donostia-San Sebastián). Eskabideak zuzenean entrega daitezke edo, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APE Legean ezarritako edozein bide erabiliz.

22. artikulua.– Justifikazio-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Entitate onuraduna beste administrazio publikoa bat ez den kasuetan:

a) Diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako programa edo jardueraren gaineko memoria deskriptiboa, ahalik eta zehatzena, non haren exekuzioa, betetze-maila eta ebaluazioa ere jaso behar baitira.

b) Diruz lagundutako programa edo jardueraren behin betiko exekuzio-aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta zehatzena, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitorpen bidez.

b.1.– Aurrekontuak orekatua beharko du izan, hots, gastuak berdin diru-sarrerak, eta diru-sarreren atalean honako datu hauek, besteak beste, zehaztu beharko dira:

b.1.1.– Entitate onuradunaren behin betiko diru-ekarpena.

b.1.2.– Xede berberaz nazio mailako zein nazioarteko herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuen diru-ekarpenak.

b.1.2.1.– Diruz lagundutako programa edo jarduera burutzeko entitate onuradunak Kultura Sailak emandakoaz gain bestelako laguntzarik edo diru-laguntzarik jaso ezik, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitorpena ere aurkeztu beharko da, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetua.

b.1.3.– Kultura Sailak esleitutako diru-laguntza.

b.1.4.– Beharrezkoa izanez gero, aurrekontu-oreka lortze aldera, entitate onuradunak jarritako diru-kopuru osagarria, zeina entitate onuradunak metatutako defizit gisako zenbatekotzat hartuko baita.

c) Diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzioa dela-eta ordaindutako nomina oro edota sor-

Artículo 21.– Lugar y modo de presentación de las justificaciones.

Las justificaciones, que se ajustarán al modelo que se publica como anexo III a la presente Orden, junto a la documentación complementaria, deberán dirigirse al Director de Servicios del Departamento de Cultura y se presentarán en la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz) o en los Servicios Territoriales de Bizkaia (Gran Vía, 85 - Bilbao) o Gipuzkoa (Andía, 13/Donostia-San Sebastián), pudiendo utilizarse cualquiera de los procedimientos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC).

Artículo 22.– Documentación a aportar junto con el impreso de justificación de la subvención.

1.– Supuesto de que la entidad beneficiaria no sea otra administración pública:

a) Memoria detallada y lo más amplia posible relativa a la ejecución, grado de cumplimiento y evaluación del programa o actividad presentada junto con la solicitud de subvención.

b) Mediante declaración jurada, suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad beneficiaria, presupuesto definitivo de ejecución (gastos e ingresos) lo más desglosado posible del programa o actividad subvencionada.

b.1.– El presupuesto deberá ser equilibrado, es decir, gastos igual a ingresos, incluyendo, entre otros, en este último apartado:

b.1.1.– La aportación definitiva de la entidad beneficiaria.

b.1.2.– Las aportaciones de otras administraciones o entidades, ya sean públicas o privadas, nacionales o internacionales, para la ejecución del mismo programa o actividad.

b.1.2.1.– En el caso de que la entidad beneficiaria no hubiera recibido ayuda o subvención alguna diferente a la del Departamento de Cultura para la ejecución del programa o actividad subvencionado, se deberá adjuntar declaración jurada efectuada a tal efecto suscrita por la persona física que ostente la representación legal de la entidad beneficiaria.

b.1.3.– La subvención otorgada por el Departamento de Cultura.

b.1.4.– Si fuera necesario, en orden a alcanzar el equilibrio presupuestario, la aportación extra realizada por la entidad beneficiaria, aportación que será considerada a todos los efectos como déficit acumulado por la entidad beneficiaria.

c) Relación comprensiva de todas las nóminas y facturas o recibos de los gastos efectuados con motivo de

tarazitako gastuen faktura edo ordainagiri oro jasotzen dituen zerrenda ulergarria, IV. eranskineko ereduari jarraituta. Zerrendari honako hau atxikitu beharko zaio: entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitorpena, non, berariaz, adieraziko baita zerrendatutako nominetako, fakturetako zein ordainagirietako bakoitzak esleitutako diru-laguntzaren objektuarekin edo xedearekin zerikusi zuzena baino zuzenagoa duela.

c.1.– Entitate onuraduna Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren aitorpena egitera behartuta badago, aipatu zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da inolaz ere egindako gastutzat hartu eta, ondorioz, justifikagirien zerga-oinarriari dagokion zenbatekoa besterik ez da izango gastu justifikatua. Hori horrela, entitatea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoaren zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, non adieraziko baitu berak ordezkatzen duen entitatea BEZa zergaren aitorpena behartuta dagoenentz eta, ondorioz, aurkeztutako gastu-aurrekontuak BEZ zergari dagokion zenbateko ez-kengarria barne hartzen duela edo, aldiz, zenbateko kengarria kanpoan uzten duela.

c.2.– Salbuespen gisa, eskabide-orriarekin batera aurkeztutako hasierako gastu-aurrekontua 100.000,00 eurotik gorakoa bada, diru-muga hori iritsi arterainoko gastuen zerrendaketa baino ez da aurkeztu beharko.

c.3.– Dena dela, Zerbitzu Zuzendaritzak hala eskatzen badu eta beti ere esleitutako diru-laguntza behar bezala justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea bukatu eta handik hiru hilabeteko epean, exekutatutako gastu osoa estaldu arteko gainontzekoen zerrenda zuzendaritza horren esku jarriko dutelako konpromisoa beren gain hartzen dute entitate onuradunek.

d) Diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzioa dela-eta ordaindutako nominak edota sortarazitako gastuen faktura edo ordainagiriak, diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontu osoaren pareko zenbatekoari dagozkionak. Kasuan kasuko hirugarren interesdunari egin beharreko ordainketa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentu edo agiriren bat fakturarekin zein ordainagiriarekin batera aurkeztea nahitaezko baldintza da.

d.1.– Eskuarki, gastu-justifikantetzat hartzen diren dokumentu edo agiriak nominak eta fakturak edo ordainagiriak dira. Horiek guztiek, baliozkoak izateko, enpresarioek eta profesionalek fakturak egin eta emateko beharra arautzen duen indarreango araudi fiskalak ezartzen dituen baldintza guztiak bete beharko dituzte.

d.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuen kontura egiten den finantzazioak diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontuaren % 50a gainditzen ez badu, ordaindutako nominak edota programa edo jardueraren exekuzioak sortarazitako gastuen egiaztagiriak ere aurkeztu beharra dagoen arren, horiek, la ejecución del programa o actividad subvencionado, de acuerdo con el modelo del anexo IV, acompañando aquélla de una declaración jurada suscrita por la persona que ostenta la representación legal de la entidad beneficiaria, en la que se señalará expresamente que todos y cada uno de los gastos relacionados se corresponden con el objeto de la subvención concedida.

c.1.– No podrá incluirse como gasto ejecutado el importe del IVA deducible cuando la entidad beneficiaria esté obligada a realizar declaración del mencionado impuesto, y por tanto la cantidad que podrá imputarse como gasto es la correspondiente a la base imponible de los justificantes. En este sentido, deberá aportarse declaración jurada suscrita por la persona que ostenta la representación legal de la entidad solicitante, manifestando en la misma que la entidad a la que representa no está/está obligada a realizar la declaración del IVA y que, consecuentemente, el presupuesto de gasto presentado incluye/excluye el importe no deducible/deducible correspondiente al mencionado impuesto.

c.2.– Excepcionalmente, y cuando el presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención sea superior a los 100.000,00 euros, deberá presentarse una relación tan sólo por una cuantía equivalente al importe anterior.

c.3.– No obstante, cuando la Dirección de Servicios así lo requiera, y siempre dentro del periodo de tres meses contados a partir de la finalización del plazo para la presentación de la documentación acreditativa de la justificación de la subvención otorgada, las entidades beneficiarias asumen el compromiso de poner a disposición de aquélla la relación de gastos restantes que cubran el importe total del gasto ejecutado.

d) Justificantes de gastos originados con motivo de la realización del programa o actividad subvencionado, por una cuantía equivalente al importe total del presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención, justificantes que, obligatoriamente, deberán ir acompañados de la documentación acreditativa de haberse efectuado el libramiento del pago a favor del tercero interesado en cada caso.

d.1.– Los documentos que tienen la consideración de justificante de gasto son, fundamentalmente, las nóminas y facturas o recibos, debiendo éstas/os últimas/os reunir los requisitos establecidos por la normativa fiscal en vigor, que regula el deber de expedición y entrega de facturas que incumbe a empresarios y profesionales.

d.2.– Excepcionalmente, y cuando la financiación con cargo a los presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco no supere el 50% del presupuesto de gastos inicialmente presentado junto con la solicitud de subvención, deberán presentarse justificantes de gastos originados con motivo de la realización del programa o actividad sub-

salbuespen gisa, esleitutako diru-laguntzaren pareko zenbatekoari dagozkionak baino ez dira izan behar.

d.3.– Dena dela, Zerbitzu Zuzendaritzak hala eskatzen badu eta beti ere esleitutako diru-laguntza behar bezala justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea bukatu eta handik hiru hilabeteko epean, diru-laguntza eskuratzeko eskabide-orriarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontuaren zenbateko osoari dagozkion gainontzeko gastuen egiaztagiriak zuzendaritza horren esku jarriko dituztelako konpromisoa beren gain hartzen dute entitate onuradunek.

d.4.– Gastuen egiaztagiriak aurkezteko moduari dagokionez, jatorrizkoak besterik ez dira onartuko, edo besterik ezean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo dagokion Lurralde Historikoko Kulturako Lurralde Zerbitzuak konpultsatutako fotokopiak.

e) Diruz lagundutako programa edo jarduera delaeta sortutako material orotatik bina ale –hizkuntz bertsio guztietan eta euskarri fisiko, optiko nahiz magnetikoan–, zeinetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dela adierazi beharko baita.

e.1.– Diruz lagundutako programak edo jarduerak bestelako finantziazio-iturriak izanik eta, aldi berean, entitate onuradunak hori horrela dela publizitatu beharra izanez gero, Kultura Sailak esleitutako diru-laguntzari entitate onuradunak eskainitako zabalkunde-bideek eta garrantziak bestelako finantziazio-iturrienekiko antzekoak izan beharko dute.

